

## Dantza hasi da



Iñaki Odriozola  
IRAKASLEA  
@Inaki\_Odriozola

**K**atalunian gertatzen ari diren garai zalapartatsuei begira egon naiz, artikulua idatzi aurretik, ez pentsatzen dudalako zerbait lortuko dutela, baizik eta agerian uzten ari direlako espainiar erresumako elite eta politikarien jarrera zapaltzailea, berriro ere.

Harritzen nauena, ordea, hauxe da: euskal gatazkaren inguruan ibili den euskaldun askok, prozesu honi buruz daukan ingenuitatea. Alboan ikusten ditut, azken urteetan gertatutakoa eta Espainiako XX. mendeko "historia" ahaztuaz, pentsatuz jendarte katalanak, era baketsu eta demokratikoan, bozen indarra bakarrik erabiliz, lortuko duela independentzia.

Oraintsu arte, Espainiako Erresumak urratsik eman ez duenez, ematen zuen prozesua aurrera zihoala. Niretzat, bai gure jendeak, bai katalanek sentsazio hori izan dute: milioi eta erdiko manifestazioak egin, izugarritzko jende erakusketak, bozka egin azaroaren 9an, bozka egin autonomikoetan, eta ez da ezer gertatu izan. Ez zegoen bestaldetik erreakziorik.

Barkatu inozo guztiok, baina, katalanek azken lau urteetan ez dute euren burua animatu besterik egin –"Ez da gutxi! Nahiko genuke geuk ere, egoera horretan egotea", esango dit norbaitek-. Baina, hotzean, jakin behar dugu, gogorra egiten bazaigu ere, horrek politikoki tamaina gutxiko garrantzia izan duela. Ez dira egitura juridiko-po-

litikorik aldatzen saiatu, duela bizpahiru astera arte. Orduan hasi da dantza.

Parlamentu katalanak erabaki duenean prozesua benetan martxan jartzea, azkar asko ikusi dugu, ustezko gibel-handiek nola jokatu duten. Demokrazia derrepente ez da bozka egitea, ez da herriari iritzia eskatzea, legea –Espainiako lege sakratua– onartzea baizik. Parlamentuak, herriak aukeratutako ordezkarien bidez, gehiengoz onartu duena estatu kolpe bihurtu da, eta hori egiten dutenak autoritarioak dira, desorekatzaileak eta amildegira eramango gaituztenak.

Hau da hau, hitzen esanahi eta diskurtsoak hankaz gora jartzea, indarra erabiliko dutenak, berriro ere, demokrata agertu ahal izateko. Gu-xiengoa direnak, espainiar zaleek, bozen bidez lortu ez dutena, indarraren bidez lortuko dute, legearen indarrez, diruaren indarrez, eta behar izanez gero, armen indarrez.

Espainia denboratik at dagoen kontzeptua da, nazio milenarioia, odol eta suz egindako inperio dekadentea, eta katolizismoaren zutabe unibertsaleko bat, obispoaren esanetan: Ongi Morala.

Zuek uste, herritar moderno zarpaildu batzuek erabakitzeke ustezko eskubidea hartu nahi dutelako, Egia Oso hori guztia desegingo dutela? (Nahiago nuke, lau edo bost urte barru, gaur esandakoak irentsi behar izatea, baina oraintxe bertan ez daukat zalantzarik). ■

## Bi sasoi



Edu Zelaieta  
IDAZLEA

**G**ero eta okerrago daramatzazu eguraldiaz entzuten diren ohiko komentario batzuk. Hemengo eguraldiaren ustezko eskasa salatu nahi duten adierazpen zozok petratzen zaituzte gehien: "Hemen ez dago udaberririk, negutik udara zuzenean pasatzen baikara"; "hemen ez dago udazkenik, udatik negura zuzenean pasatzen baikara". Bi sasoioko eguraldia omen da gurea, argindar-etengailu baten pare dabilena: *off-on*. Bi aukerakoa.

Eztabaidatxoa izan zenuen lehengoan lankide batekin. Hura ere hemengo eguraldiaren bitartean aldeze porrokatua izaki, lau urtaroen

kontua eskolan ikasitako gezurtzat zeukan, haurrentzako ipuin gozotzat. Umorea eta hiperbolea alde batera utzita, defendatzen ari zen iritziaren frogagarri, arropa-dendetako paisaia aurkeztu zizun ebidentzia gisa: "Bertan, bi sasoioko arropa baino ez duzu aurkituko: negukoa eta udakoa".

Eguraldiaz mintzatzeko arropa-dendak erreferentzia nagusitzat hartzeak harritu zintuen, baita pixka bat sumindu ere. Geroago, ordea, argigarri gertatu zitzaizun pasarteak, lanetik ateratakoan: eguraldia ez da gehiago eguraldi; hura nahierara ez menperatzeak sortzen digu arrangura, non-bait, oporrak amets dituen jendarte honetan. ■